



jasaldremos!!

**Balioko duen diskurso bakarra izango da hizlariak ekitaldian berian eskainiko duena.**  
El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

## BERRIKUNTZA

**Iñigo Urkullu Renteria**

**Abanto, 2020ko ekainaren 29a**

Berrikuntza da gure orainaren eta etorkizunaren giltza. Osasun krisiari eta krisi ekonomikoari Euzko Alderdi Jeltzaleak emandako erantzunaren ardatz nagusia. Gure konpromisoa produktu eta zerbitzu berriei aplikatutako Zientzia, Teknologia eta Ikerketan gehiago inbertitzea da. Adibiderik onena hemen dugu, Ezkerraldea Meatzaldeko Parke Teknologikoan. Hazten ari den eta haziko den parkea da. Teknologian eta berrikuntzan haziko den inbertsioa.

Hori da trantsizio hirukoitzaren buruan kokatzeko bidea: osasun eta gizarte trantsizioa; teknologikoa eta digitala; energia eta ingurumen trantsizioa.

Berrikuntza soka luzeko inbertsio bat da. Euskadin ez gara hutsetik abiatzen. Hamarkadak daramatzagu Ikerketaren eta Garapenaren aldeko apustua egiten, eraldaketa sustatzen. Azken legegintzaldi honetan inbertsioak urtean % 5 handitzeko konpromisoa hartu genuen. Emandako hitza bete dugu. Orain, konpromisoa areagotzen dugu: urtero inbertsioa % 6 handituko dugu. Gure hitza beteko dugu. Hau, krisiari ematen diogun erantzuna da: Berrikuntza gehiago. Euskadi berritzalea izango da edo ez da izango.

Bost konpromiso hartzen ditugu:

- Aurtzen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria onartuko dugu. Guztira 20.000 milioi euroko inbertsio publiko pribatua, 2030 urtera arte.
- Espezializazio adimenduneko estrategia, industria aurreratuan, osasunean eta energia berriztagarriean zentratuko dugu.
- Inbertsioa lau aukera-eremutan lehenetsiko dugu: Elikadura, Ekoberrikuntza, Hiri jasangarritasuna, Kultura eta sormen industria.
- Basque Artificial Intelligence Center martxan jarriko dugu. Zentro publiko pribatua, enpresa sarearekin lankidetzan sortua.
- Tokiko talentua sustatzeko eta nazioarteko ikertzaileak erakartzeko apustua. Gure helburua Ikerbasque sarean 400 zientzialari izatea da, horietatik % 40a gutxienez emakumeak.

Berrikuntza gehiago enplegu gehiago da. Berrikuntza gehiago ongizate gehiago da. Berrikuntza gehiago aberastasun gehiago da; eta gizarte-politika gehiago egin ahal izateko aukera.

Euzko Alderdi Jeltzalearen helburua da Euskadi Europako berrikuntza gune bihurtzea.

## INNOVACION

La innovación es la llave de nuestro presente y de nuestro futuro. Es el eje central de la respuesta del Partido Nacionalista Vasco a la crisis sanitaria y a la crisis económica.

Nuestro compromiso es invertir más en Ciencia, Tecnología e Investigación aplicada a nuevos productos y servicios. El mejor ejemplo lo tenemos aquí, en el Parque Tecnológico de Ezkerraldea Meatzaldea. Un Parque que crece y va a crecer. Como crece y va a crecer la inversión en tecnología e innovación.

Esta es la vía para situarnos a la cabeza de la triple transición: sanitaria y social; tecnológica y digital; energética y medioambiental. La innovación es una carrera de fondo. En Euskadi no partimos de cero. Desde hace varias décadas hemos apostado por la I+D para adaptarnos al cambio. Esta última legislatura nos comprometimos a aumentar las inversiones un 5% anual. Lo hemos cumplido. Ahora nos comprometemos a meter una marcha más: aumentar las inversiones un 6%. Lo vamos a cumplir. Es nuestra respuesta a la crisis. Más innovación. Euskadi será innovador o no será. Cinco actuaciones. Cinco compromisos del Programa Euskadi Zutik:

- Aprobar este año el nuevo Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación de Euskadi. Supondrá una inversión público-privada de 20.000 millones de euros hasta 2030.
- Estrategia de especialización inteligente centrada en la industria avanzada, la salud y las energías renovables.
- Inversión en cuatro territorios de oportunidad: Alimentación, Ecoinnovacion, Sostenibilidad urbana, Industrias culturales y creativas.
- Centro vasco de Inteligencia artificial- Basque Artificial Intelligence Center. Centro público privado, creado en colaboración con el tejido empresarial.
- Apuesta por el talento local y la atracción de investigadores internacionales de excelencia. Con especial énfasis en el personal femenino investigador. Nuestro objetivo es alcanzar la cifra de 400 personas científicas de excelencia en la red Ikerbasque, el 40% mujeres.

Más innovación es más empleo y de mejor calidad. Más innovación es más bienestar. Más innovación es más riqueza para poder realizar más políticas sociales. El Objetivo del Partido Nacionalista Vasco es hacer de Euskadi un polo de innovación europeo.